

Allan Poek osatu zuen nobela bakarrean – *The Narrative of Arthur Gordon Pym of Nantucket* (1838, Nantucketeko Arthur Gordon Pymen narrazioa) –, protagonista matxinadatik, gosetik, sarraskitik eta kanibalismotik bizirik ateratzen da, eta itsaso polar batean bukatzen. Ur jauzi batek irentsita hiltzekoa denean, izaki erraldoi bat ikusten du, azalaren kolorea «elurraren zuri akasgabea» duena. Nonbait, Jules Verne amaiera horrekin gustura geratu ez, eta, *An Antarctic Mystery* nobelan (1897, Misterio antartikoa), Pym itsasotik erreskatatzen du, eta mendir batean hiltzen utzi.

Frankenstein ere bai

The Captain of the Pole-Star agertu eta sei hamarkada geroago, Mary Shelleyk Ipar Polorako bidean jarri zuen beste kapitain bat, Robert Walton: hara iristean, Victor Frankenstein izeneko doktorea erreskatatzen du izotzetik. Berak sortutako munstroa harripatzeko asmoz abiatu zen Frankenstein Ipar Polora. Munstroak gizakien krudelkeriatik babesteko jo zuen hara, baita bere sortzailearen heriotza bultzateko ere, bai baitzekien bila joango zitzaiola. Gertaerak ez zaizkigu Frankensteinen beraren eskutik iristen, Waltonek Ingalaterrako arrebari idazten dizkion gutunen bidez baizik. Kapitainak, ordea, doktorearen istorioa kontatu ez ezik imitatu ere egiten du, hein handi batean. Frankensteinen antzera, harrokeria zientifikoak bultzatuta, polotik hurbil pasabide bat aurkituta «gizateria osoari azken belaualdira arte» eskainiko zion «onura» sinetsita helitzen da Artikora. Eta Frankensteinin gertatu bezala, Waltonen fantasiak amaiera tragikoa du. Arrebari bidaltzen dion lehen gutunetik bederatziti hilabetera, «izotz mendiek inguratuta» daudela eta haiek zanzpatuak izateko arriskuan daudela idazten du. «Hotza ikaragarri handia da, eta zoritxarreko kamaradetako zenbaitek zerraldoan amaitu dute hondamendi honen erdian».

Nonbait, Ipar Poloa konkistatzeko aukerak ez zion beste eremuen konkistak eragindako dilema moralik pizten Britainia Handiari. Espazioaren zuritasunak eta uestzko hustasunak justifikatu egiten zuten eginkizun ohoragarri eta duin gisa. Chauvinismo ingelesak bultzatuta, milaka indigena hil ziren britainiar inperioaren izenean lurraz indarrez hartzearen ondorioz. Artikoa, jarraerak berak hainbat indigenaren eta ingelesten heriotza eragin zuen.

Pekingo pintzelkadak

Alex Gurrutxaga

Perfil profesional markatua da Beatriz Chivite Ezkietarena: urteak eman ditu sorlekutik kanpora, hainbat hizkuntza dakizki, eta filologia txinatarrak ikasi da. Azken datu hori ez da badaezpada, *Pekineko kea* baita hizketagai dugun liburua. Egileak berak esana da, bestalde, bere buruarekin euskaraz aritzeko beharra izan dela, neurri batean behintzat, poesia idaztera bultzatzen duena.

Hainbat poesia sari irabazia da Chivite, hala nola Ernestina Champourcin, *Metro*-rekin (2014), edo Blas de Otero (2016), oraindik argitaratu ez den *Bien-nale* izenekoarekin. *Pekineko kea*-k Iruñeko poesia lehiaketa irabazi zuen 2012an, baina, kuriosoa den arren, orain gutxi argitaratu du Pamiela etxeak.

Metro-k eta *Pekineko kea*-k, aski ezberdinak izanik ere, zen-

bait antzekotasun tematiko eta poetiko dauzkate, hala nola identitatearen eraikuntza eta oreka bilaketa, instanteen inportantzia, harremanen galkortasuna eta bi-daiatzeara; eta formalki ere badaukate antzekotasunik, bereziki la-



'Pekineko kea'

Egilea: Beatriz Txibite Azkietak.
Argitaletxea: Pamiela.

Paradisu galduaren bila

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburuan hogeitaletan banatutako narrazio luze bat aurkituko duzu. Bere familiaren berri ematen digun neskato bat da narrazzailea. Kontaketa osaba Lukasen biografian zentratzen da, baina fokoa neskatoarengan osabak duen eraginean dago, baitatik bat. Gainerako aktoreak bera-rekin bizi diren amama, aitaita, zena, aita eta ama dira, azken hau baserrira ezkondua, Pikueneara. Bada azken aktore bat, baserriari izen ematen diena: etxe atarian dagoen pikondoa.

Familiak kontakizunaren unitbertso osoa betetzen du, unean uneko bizpahiru agerpen kendu-

ta: medikua, hiru soldadu, maisua. Liburuaren azalean hamar urtetik aurrerako gazteei gomen-dutzen zaie irakurketa, baina gaiaren eta estiloaren ezaugarriak gogoan hartuta, helduen-



'Pikondoaren balada'

Idazlea: Leire Bilbao.
Ilustratzailea: Maite Mutuberria.
Argitaletxea: Elkar.

burtasunean, konkrezioan eta plastizitatean. Edonola ere, *Metro*-ko behatzailea europar bat da XXI. mendeko Europan, eta idazlearen tenpoa eta gaine-rakoena berbera da. Aldiz, Pekinen, idazlearen erritmoak askotan egiten du talka inguratzen dutenenarekin.

Pekineko kea-k oharren koademo tankera dauka, egilea kale-etan paseatzen eta ohar xumeak hartzen balebil bezala. Ongi islatzen dute hori hiriko eszena ezberdinak jasotzen dituzten poemek, adibidez, *Lehen begirada*-k edo aldakuntzei buruzko *Festa*-k. Ziutategi girotik edaten du poetak, ikusten duen mundua eta bere barnekoa ez-konduz. Funtsean, ez daude hain urrun poeta erromantikoa eta postmodernoa jarrera poetikoak: hark naturan islatzen baituen sentimenduak, honek erai-kinen artean egiten du. Alde horretatik, giroa ez dago Sophia Coppolaren *Lost in translation* bezalako lanetatik urruti, niaren eta hiria-aren, jendetzaren eta barkadarearen arteko jokoak baita poemategiaren ardatza, liburua zabaltzen duen Li Bairen aiputik hasi, lehen poema den *Noraezean*-etik pasa eta azken lerroetara.

Espazioetan ere azaleratzen da foko bikoitz hori: batetik, kaleak agertzen zaizkigu, eta, bertan, ohiko eginkizunetan dabilzainak, eskaleak, turistak, eta abar; bestetik, poetaren gela dago, bere eremua, barne bizitzari eta hausnarketari lotuagoa.

Tonuari dagokionez, Chivite-ren poesia ez da batera anpatua edo antzalduta: ahots apalez, tonua galduta gabe eta ironia finez margotzen ditu poemak. Gehienak oso laburrak dira, eta irudi baten inguruan eraikiak daude. Horretan zerikusia dauka Ekialdeko kulturak ere, batez ere elipsietan eta iruditerian azaleratzen baita haren inpronta. Esan behar da, bide batez, barneko irudiak –zeru lauso, dorre ilun eta argindar hariak– egilearenak direla, eta baita azaleko argazkia ere.

Liburua orokorrean balioetsiz, suma liteke poema askok, bildumaren barruan ez baleude, ez lukekela koadernoko ohar pertsonaletik harago ezkutatzeko den arnasa poetikorik; alegia, makrotestuak berak ematen die poema askori zentzua eta indarra, osotasunaren parte gisa. Osotasun horretan dago, hain zuzen, liburuaren lorpena, Pekingo kearen eta paseatzailearen arteko sinbiosian.

tzako ere irakurketa gomendagarria dela iruditzen zait.

Deskribaketarekin amaitzeko, aipatu gabe ezin utzi ilustrazio lana: azalekoarekin, hamabi ilustrazio handirekin hornituta dator liburua, horietako bat bi orrikoa, nahi gabe ere Concetta Probanzen *Bidea* gogorarazten didana. Gainera, atal bakoitzaren hasierako goiburuan iruditxo bana dago –ez alferrik–, eta portadan irudi bat, obraren oinarriko ideia sintetizatzen duena.

Istorioak aldarrikapen bat dauka berekin, hasieratik josten dena eta irakurleak bai ala bai jasoko duena, gerrarekin zerikusia duena, eta jarrera antimilitarista garbi bat azaltzen duena. Tesiaren muina ote den ziur jakin gabe, hona osaba Lukasen ahotan: «Ezin da esan gerrate baten errua alde bakarrarena denik. Alde batek besteak baino makurrago joka dezake, baina, alde batek edo besteak, zeinek daukan arrazoia erabakitzeo saiakerek ezin dezakete inoiz, egundo, sekula guda baten bortitza, krudela eta ankerra justifikatu» (40. orrialdea). Osaba Lukasen aldarrikapen luzeago doaz, baina nik uste sintesia amaiera aldera

botatzen duela zirto honekin: «Bakea irribarre batekin hasten da» (70. orrialdea). Izan ere, osaba Lukasi gerrara joateko egokitu-ko zaio, bere anaia-arekin batera –protagonistaren aitarekin hain zuzen–, eta berak argi dauka inolaz ere ez dela joango.

Hala ere, aldarrikapenak aldarrikapen, istorio honek duen bitxikeria nagusia ez da osabaren jarrera antimilitarista, baizik eta bizitzari aurre egiteko aukeratzeko duen modua.

Literaturan paralelismoak bilatze aldera, hiru obra aipatu-ko ditut, beren ospeagatik denon ezagueran egongo direlakoan. Lehena Leo Lionniren *Frederick* da, gurari materialista oro baztertzen duen sagu poeta. Bigarrena Janne telleren *Ezer* ez da, gure zibilizazioaren hutsaltasuna salatzearen gaztetxo bat arbolarra igotzen denekoa. Eta hirugarrena Italo Calvinoren *Il barone rampante* klasikoa da, arboletara igota bizi osoa ematen duen ekingitzaile apasionatuaren istorioa.

Iruditzen zait konparaketa honen irakurle gaiak sumatuko duela zein den obra honen eka-rena, eta nire iritziz duen balioa.